


IRUDIMEN-LABORATEGI BATEKO EGUNEROKOA

"Bost ezaugarri ditu txori bakartiak. Lehena, goian gorago doa; bigarrena, ez du ondoan inor jasaten, izaera berekorik ere ez; hirugarrena, airea nora, mokoia hara; laugarrena, ez du kolore jakinik; bosgarrena, emaro kantatzen du."
San Joan Gurutzekoa



Hegan inguratu

Banuen lagun bat herrian, txikitako lagun handi bat. Nire familiakoak beti saiatu ziren gu banantzen. Irten nintzenean, ez nuen agurtzerik izan. Mezuak idatzi dizkiogu elkarri, baina ezin izan dugu hitz egin. Ezin izan dut haren ahotsik entzun. A.A

2021ean, Voxek kartel bat ezarri zuen Madrilgo Puerta del Soleko geltokian: "Mena bat: 4.700 euro hilean. Amona: 426 euroko pentsioa hilean". Gorroto-mezu manipulatzailer nabarmena zen. MENA Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Atzerritarrak (IKEDAA) izendatzeko akronimoa da, batez ere Magrebeko herrialdeetatik datozenekin lotuta dagoena, Marokotik eta Aljeriatik iritsitakoekin batik bat. Baina badira Afrikako beste herrialde batzuetatik, Ekialdeko Europatik eta Ekialde Ertainetik iritsitako inoren kargura ez dauden adin txikikoak ere. Sigla horiek gizatasuna kentzeko eta kriminalizatzeko zama naturalizatua eransten die jatorrizko herrialdeetatik alde egin duten gazteei, ihesi datozenei pobreziatik, indarkeriatik, gerratik, aukerarik ez izatetik, jazarpenetik, erakundeen babesgabetasunetik, edo "Europako ametsa" betetzera datozenei. Ia guztiak

hegoaldeko mugatik sartzen dira, helduek urratutako ibilbideei jarraituz, zeharkaldiko hilabeteetan abusuak, salerosketa, esplotazioa eta eskubide urratzeak jasateko arriskuan.

Behin Espainiara iritsita, agintariek, adinez nagusiak direla jakintzat joz edo proba medikoen bidez adina zehazteko prozesu bortitza jasanaraziz, polizia-etxe batean egotera behartzen dituzte, harik eta horiek identifikatu eta erregistratu arte. ABZ Atzerritarrak Barneratzeko Zentro (CIE) batean sartzen dituzte, eta han egon ostean, bi aukera izaten dituzte, jatorrizko herrialdera kanporatzea, alde batetik, ala Espainian prekariedade handiko egoera irregularrean geratzea, beste aldetik. Askotan, lehenbailehen itzularazten dituzte, legez kanpo eta indarkeriaz, aldez aurretik pertsona bakoitzaren inguruabarrak egoki identifikatu eta baloratu gabe.


Nerabe eta gazte etorkin horien alderdirik kritikoenetako bat dauzkaten gorputzak eta etorkizunerako itxaropenak ikusezin izateko edo estigmatizatzeko eremua da. Erabakiak helduen ikuspegitik hartzera behartuta, askotan hartu behar dituen komunitatean gizarteratzeko hizkuntzarik jakin gabe, hautsitako familia-gune eskastuetan edo horrelakorik ere gabe, etendako ikasketekin eta bizitzekin, emigrazio-prozesu traumatikoekin, muga amaigabeetan lehenengoa igaro orduko desegiten diren ametsekin, laneratzeko arazo handiekin, bizitzeko jomuga eta lan kaskarrekin, egonkortasun afektibo egokirik gabe.

Harrerako sistemek, teoriarik, babesleku segurua eta funtsezko laguntza eskaini beharko lukete. Alabaina, errealitatea konplexua da. Asmo hori gauzatzeko programak badiren arren, nerabe eta gazte etorkin askok ez dute baliabiderik, ez dute gaitasun aski eskuratzen. Gabezia horien ondorioz, pilatuta bizi dira, zerbitzu mugatuak dituzte eskura, egokitzeko eta ongizatea eskuratzeko oztopoak izaten dituzte.

Asistentzialismoaren esparruan, ezinbestekoa da oinarrizko laguntzaz hornitze soila baino gehiago kontuan hartzea. Berehalako premiak asetzeko funtsezkoa baldin bada ere, asistentzialismo mota batzuk "laguntza pasiboaren" tranpan eror daitezke, mendekotasuna eratuz eta etorkinak laguntza-hartzaile pasibo moduan betikotuz.

Zeharkaldia

Gure herrian, iraultzaren erdian, errebelde gaizkileek ama, aita, neska-laguna eta semea hil zizkidaten. Egunero hitz egiten dut arrebarekin, eta, indarkeriak eraginda, urduri sumatzen dut. Arreba lasaitzen ahalegintzen naiz, ez diot kontaktzen hemen bizitzen ari naizen guztia. Indarra ematen diot, horixe soilik. Egoera honek benetan urduritzen nau. P.B



2021ean, kartel bat jarri genuen Madrilgo Lequericako Mejia Harrera Zentroan, gonbidatuz Kongo, Kamerun, Boli Kosta, Maroko, Liberia, Nigeria eta Senegalgo nerabe eta gazteak "Irudimen Laborategiak" proiektuan parte hartzera; Laborategi horiek "Hipotalamoaren hegaldia" proiektuaren lehen ikerketa-etapako atal moduan diseinatu ziren. Ikertzeko, ekiteko eta sortzeko proiektu horren bitartez, Espainian administrazio egoera irregularrean dauden nerabe eta gazte etorkinen bizitza aztertzeko asmoa genuen, eta sorkuntza garaikidearen sentiberatasun-tresnak probatzeko, dauzkaten samin-guneak sendatzeko prozesu moduan, baina baita desio dituzten etorkizunak eraikitzeko ere.

Prozesuak sormena aktibatu zuen, elkarriketarako eta helduen ikuspuntutik erabakitzera behartutako gorputz bortxatu horien hausturetan esku hartzeko tresna indartzaile bihurtuta,

amaitzen ez diren mugetako lehenengoa igaro orduko immigrazio-prozesu traumatikoak bizi ostean, eta ametsak deseginda.

“Hipotalamoaren hegaldia” proiektuak guztiontzako (nerabeak, gazteak, artistak, espezialistak, ekintzaileak, erakundeak, publikoak eta komunitateak) ikasteko guneen premia dokumentatu zuen. Fikzio konpontzaile kolektiboak irudikatzeko laborategiak garatzea eskatzen zuen prozesu horizontal baten bitartez, horretarako erabiliz nerabe eta gazte horien itxaropenak, pentsamenduak eta sentimenduak aztertzea eta partekatzea helburu zuen metodologia bat. Horren bitartez, gorputz migratzaileen estereotipoak nola deseraiki galdetu nahi genuen, dauzkaten obsesioak, afektuak zein familiako eta gizarteko zauriak nola berreraiki eta proiektatu. Nola gizarteratu eta baloratu jatorrizko herrialdeetatik eta ama-hizkuntzetatik ekarritako memoria eta ezagutzak. Haiengandik eta haiekin nola ikasi.

Antzerki dokumental garaikideko pieza bat sortzea genuen amets, uztartuko zituena hegazti migratzaileen kantua eta nerabe zein gazte horien ahotsak, eszenatik aplikatzeko eta zeharkatzeko gatazkak, desioak, oinaze, plazer eta maitasun guneak, migrazioko eta klimako krisien arteko erlazioa. Bizi-historietan oinarritutako inprobisazioen bidez eraikitako pieza da, arreta bideratuta gorputza bazterkeriako lehen lurraldea dela ulertzea, eta bizi-guneetan aditzeko ariketetara, hiria mapatzera eta hiria edo auzoa nola zeharkatu galdetzen zuten kartografia afektiboak eraikitzen, zeuzkaten esperientzia sentikorretan oinarrituta.

Hiru hilabetez lanean aritu ostean, Zentroko dinamikak aldatu egin ziren, eta, mutirik beste "leku" batzuetara eramango zituztenez, ezin izan genuen han elkarrekin egiten ari ginen bidaiari jarraitu. Beste espazio eta bidaiari batzuetan elkartzeko hasi ginen (Europa parkea, El Retiro, Mi casa, Madrid Rio). Agertzen hasi ziren beste agertoki batzuk (Condeduque, Arganzuela zentroko CEPI, Hablar en arte, Casa Encendida, Espacio Afro), bai eta beste desio batzuk ere.

Bay senegaldar gaztea patana batean Ozeano Atlantikoa zeharkatzen ari zela, abayomi bat erori zitzaion oinetara, itsaso sakonetik irtenda. Abayomiak panpinak ziren, esklabo bihurtutako emakumeek seme-alaben negarra eta oinazea baretzeko egindakoak. Jantziak urratuta, sei korapiloz egiten zituzten, korapilo bakoitzean otoitza, desioa eta bedeinkapena banan-banan, maitasunaren, babesaren, pozaren eta erresistentziaren ikur moduan.

Zer jan duzu gaur?

Nola dago zure familia?

Nola iritsi zinen hona?

Janaria gustatzen al zaizu?

Zer duzu gogoko bizitzan?

Zer duzu ez duzu gogoko bizitzan?

Dirua nahitaezkoa iruditzen al zaizu ala beharrezkoa?

Eman dezagun diru asko daukazula. Lurreko paradisia eskuetan daukazula uste al duzu?

Aterpetxe honetako arduraduna baldin bazina, zer aldatuko zenuke?

Zergatik aukeratu zenuen Madril?

Zer da hirian gehien gustatzen zaizuna?

Zer kolore gustatzen zaizu gehien?

Zenbat denbora daramazu hirian?

Zer janari mota gustatzen zaizu?

Zergatik alde egin zenuen zure herrialdetik?

Nola irudikatzen duzu bizitza bi urte barru?

Zer aholku emango zenieke emigratu eta hona etortzeko asmoa duten adiskideei?

Zer ez duzu gogoko zentro honetan?

Nola dago zure familia?

Zer iritzi duzu poligamiaz?

Onartu ahal izango zenuke? Zergatik?

Nola pasa zenuen asteburua?

Bikotekidea utzi al zenuen jatorrizko herrialdean?



*Argazki guztiak irudimen-laboretegia egindako marrazkiak dira. Kreditua: Osikán - vivero de creación

José Ramón Hernández (Palma Soriano, 1988)

Diziplina arteko artista afro-kubatarra. Madrilen eta Habanan bizi eta lan egiten du. Zuzendaritza artistikoa, dramaturgia, koreografia, zuzeneko arteen komisariotza, instalazioa, performancea, irakaskuntza, bitartekaritza eta kudeaketa kulturala nahasten ditu praktikan. Osikán - vivero de creación mintegiaren sortzaile eta zuzendari artistikoa da. Egiten duen ikerketa sortzailean, ardatz ditu afro-ondorengoan erritualitateak, performatibitateak, gorputz periferikoak, materialak, espiritualtasunak, memoriak, migrazioak, kartografiak eta desioak. Fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak probatzen ditu, fikziozkoak ez diren dokumentuekin egindako lana eta sentikortasun-tresnak, prozesu sozialetan eta komunitateetan eragiteko eta esku hartzeko. Sari eta aitortza garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste, Kubako Idazle eta Artisten Batasun Nazionalaren (UNEAC) eta Antzerki Kritikarien Nazioarteko Elkartearen (ACT) Villanueva de la Crítica 2016 saria, BaquestriBois obragatik. Haren lana ikusgai izan da Kuban, Mexikon, Txilen, Dominikar Errepublikan, Alemanian, Belgikan, AEBetan, Brasilen eta Espainian. Espiritista, babalocha eta paleroa da.

Osikán sorkuntza, ikerketa, irudimen eta ekintzako mintegia da, zeinetan artistak, espezialistak, aktibistak eta komunitateak elkarrekin bizi diren. Elkar topatzeko eta parte hartzeko mintegia da, sentikortasunaren estrategiak irudikatzen dituen elkarrizketa kritikoak sustatzeko eta egungo bizitza eta lan inguruetan gizarte-zauriak osatzeko. Sorkuntza pizten dugu, eskuak lurrean jartzeko nahiarekin. Ikaskuntza kolektiboak, kuratore proiektuak, aliantzak, pentsamendu kritikoa, noraezko ibilerak eta eldarnioak ernatzea. Osikánen jatorria eta ibilbide bistakoena Kuban kokatuta dago, estatu hartako kultur erakundeen ertzetan eta periferietan era kritikoan lan egiten duten artisten giroan. Gaur egun, Madril, Habana eta Montreal artean, Osikán - vivero de creación hedatu egin da munduko diaspora kubatar, afro-karibetar eta latinoamerikarreko aliantza-sare batera, beste sare alternatiboekin eta nazioarteko zirkuituekin uztartuta.